

FUNTSEZKO JARDUERAK



Berbizi proiektuak beste proiektu batek bezala aurrera egiteko ezinbesteko gauzak behar ditu. Gure funtsezko jardueren artean, bezeroekiko **elkarlana eta hurbiltasuna** dira garrantzitsuenak. Gure helburua kontsumoa murriztea eta jantzien **berrerabilera** sustatzea da, hori lortzeko bideak ahalik eta gardenen eta eraginkorren aurkezten saiatuz.

Lehenik eta behin, gure jarduerak modu argian banatu ditugu. Alde batetik, **BerBizi online plataforma** izango dugu, eta bestetik, denda fisikoa edo **azokak** antolatuko ditugu.

1. Plataforma Digitala


Online Plataforma: Erosoa eta Zuzena

Aurrez azaldutako BerBiziren **Webgune honetan**, (<https://berbizi9.webnode.es/>) (gainean klik egin webgunea ikusteko) gure proiektuaren oinarrietako bat izango da. Plataforma honetan, erabiltzaileek arropa trukatzeko funtzioa eskuratu ahal izango dute:

- **Arropa trukatzea:** Erabiltzaileek beraien arropak edota objektuak igo eta trukatzeko aukera izango dute, hau da, arropa/objetu berriak erosi beharrean, beste arropa/objetu batzuen trukea egingo dute. Webgunean dagoeneko diseinatutako plantillak eta sistemak erabiliko dituzte, eta behin irizpideak bete ostean, arropak trukatzeko eskaerak kudeatuko dira. Gehiago zehazteko, pertsona batek nahi duen produktua igo dezake app-era, bertan norbaitek trukaketa egiteko interesa baldin badu, bere beste produktu batekin trukaketa egiteko eskaintza egingo dio. Hori horrela, biak ados egoten badira, trukaketa eratu ahalko da eta beraien artean produktuak bidaliko dituzte Correos edo DHL bidez.



Inicio
Sobre nosotros
Servicios
Nuestro Trabajo
Contacto



Sortutako **Webguneak** (<https://berbizi9.webnode.es/>) bertan klikatuz ikusi dezakezue) erabiltzaileen zalantzak argitu ahal izateko bezeroarentzako arreta zerbitzua izango du, bertan telefonoz edo korreoz kontaktuan jartzeko aukera ematen du baita.

2. Denda Fisikoa: Elkarreragin Hurbila

Azokak:

Online plataformaz eta aplikazioaz aparte, azokak eratuko ditugu, eta bertan denda txikien arropak salduko ditugu, denda horien nagusitasuna lortzeko. Horretaz gain, hau da, arropa saltzeaz gain, arropa trukaketak ere azokan eratu daitezke. Gehiago zehaztuz, norbaitek trukaketak fisikoki egin nahi baditu, bere produktuak azoketara eraman ditzakez, eta bertan berekin trukea egin nahi duen norbait aurkitzen baldin badu, beraien kabuz egin dezakete akordioa. Azokek izango dituzten ezaugarri orokor horiek ondorengoak dira:

- Hilean behin edo maiztasun egokiarekin (hauxe udalekin adostuko dugu), azokak antolatuko ditugu (Elorrión, Durangon, Abadiñon, Zornotzan eta Arrasaten), non bezeroek arropak/objetuak trukatu edo eskuz alda ditzaketen eta denda txikien arropak eros ditzaketen.
- Azokak, hilabete bakoitzean horrela antolatuko dira:
 - Urtarrila: Elorrio.
 - Otsaila: Durango.
 - Martxoa: Abadiño.
 - Apirila: zornotza.
 - Maiatza: Arrasate.
 - Ekaina: Elorrio.
 - Uztaila: Durango.



- Abuztua: Abadiño.
- Iraila: Zornotza.
- Urria: Arrasate.
- Azaroa: Elorrio.
- Abendua: Durango.

Izango ditugun plataforma eta azokez gain, garrantzitsua da ideia horiek ekar ditzakeen arazoak aurreikustea eta konpontzea. Beraz, esan beharra dago, beharrezko espazioak, baimenak eta materialak koordinatuko ditugula azoka horiek eratzeko. Horretarako, bazkide izango ditugun udalekin bilera ezberdinak egingo ditugu. Horretaz gain, trukeetan, arropa bidalketetan eta itzulketetan behar bezalako zerbitzua eskainiko dugu eta hauek egoki kudeatzen direla bermatuko dugu.

Arazoren Aurreikuspena eta Konponbideak

Prozesu hauek guztiek arazo potentzialak izan ditzakete, baina horiek kudeatzeko irtenbideak aztertu ditugu:

- **Bezeraentzako erraztasunak:** Bai online, bai presentzialki, erabiltzaileek beti izango dute arreta zerbitzua eskuragarri. Bertan zalantzak, gorabeherak edo kexak argitzeko telefono-euskarria, webgunean eta app-an daude.
- **Bereizmen azkar** eta eraginkorreko sistema bat mantentzea, bezeraen gogobetetasuna bermatzeko.

Gure Helburua:

Azkenik, garrantzitsua da BerBizi enpresa zergatik sortzen dugun gogoratzea. Gure helburu nagusia **kontsumo jasangarria** sustatzea da, jantziak berrerabili eta berritzearen bidez, ingurumenari mesede eginez eta pertsonen arteko elkarlana eta hurbiltasuna bultzatuz. Horrela, *BerBizi*-k kontsumo eredua jasangarri eta inklusibo bat bultzatu nahi du, arropak berrerabiliz, sortzen diren hondakinak murriztuz eta jendearen kontzientziazioan lagunduz.